



Batxilergoko Sari Berezia 2012/2013 Premio Extraordinario de Bachillerato

EZ SINATU ETA EZ IZENA JARRI / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE

IDENTIFIKAZIO KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO	KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN

ENPRESA-EKONOMIA

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Baloratzeko irizpide orokorrak	Criterios generales de valoración
Baloratuko dira erantzun zuzenak, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun linguistikoa.	Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística.

Baloratzeko irizpide espezifikoak	Criterios específicos de valoración
<p>1. ariketa Balantzea ondare masetan sailkatua 2 puntu gehienez.</p> <p>2. ariketa Ekitaldiko emaitza lortzea puntu 1 gehienez</p> <p>3. ariketa Errentagarritasun atariaren kontzeptua eta kalkulua 1 puntu gehienez. Adierazpen grafikoa 0,5 puntu gehienez. Kapitalaren errentagarritasun ratioren kalkulua 0,5 puntu gehienez.</p> <p>4. ariketa Balantze berria puntu 1 gehienez Finantzazio gehigarri behar duen edo altxortegi nahikorik dagoen azaltzea puntu 1 gehienez</p> <p>5. ariketa Maniobra fondoaren kalkulua, grafikoa eta esanahia azaldu.. puntu 1 gehienez</p> <p>6. ariketa EBGren kalkulua eta esanahia azaldu puntu 1.5 gehienez. Adierazpen grafikoa 0,5 puntu gehienez.</p>	<p>1er ejercicio Balance de situación ordenado en masas patrimoniales 2 puntos máximo.</p> <p>2º ejercicio Obtención del resultado del ejercicio 1 punto máximo.</p> <p>3er ejercicio Concepto y cálculo del umbral de rentabilidad 1 puntos máximo. Representación gráfica 0,5 puntos máximo. Obtención el ratio de rentabilidad de nuestro capital 0,5 punto máximo</p> <p>4º ejercicio Obtención del nuevo balance 1 punto máximo, indicar si se necesita financiación adicional, o si existe tesorería disponible 1 punto máximo.</p> <p>5º ejercicio Cálculo del fondo de maniobra, su representación gráfica y su Interpretación 1 punto máximo.</p> <p>6º ejercicio Cálculo del VAN y su Interpretación 1.5 puntos máximo. Representación gráfica 0.5 puntos máximo.</p>

Fabrika batean Surf taulak ekoitzi nahi ditugu, material berri batekin.

Instalazioan eta makinerian 300.000 €ko inbertsioa egin behar dugu; 10 urtetan guztiz amortizatuko da. *Software*, *hardware* eta bulegoko ekipamendua: 50.000 €; 5 urtetan guztiz amortizatuko da. Lehen establezimenduko gastuak: 5.000 €, 5 urtetan amortizatuko.

5 langile behar ditugu; bakoitzaren kostua: 30.000 € urtean. Gizarte Segurantzako gastuak kopuru horretan sartuta daude. Kontratazio horiek direla-eta, esplotazioko diru-laguntza bat lortu dugu: 20.000 € lehenengo urtean. Gainerako gastu orokorrak (alokairuak, energia, aseguruak...): 100.000 € urtean.

Bestalde, taula bakoitzaren lehengaiaren kostua 100 €koa da; merkaturatzeko, taulako 25 €ko kostu aldakorra dago. Salmenta prezioa: 300€ taulako.

Negozioak lehenengo urteetan duen bideragarritasuna erabakitzeko, ondoko kalkuluak egingo ditugu:

En una fábrica queremos producir tablas de surf con un nuevo material.

Las inversiones en maquinaria e instalaciones son de 300.000 € a amortizar totalmente en 10 años. El software, hardware y equipamiento de oficina asciende a 50.000 € a amortizar totalmente en 5 años, mientras que los gastos de primer establecimiento son de 5.000 € a amortizar en 5 años.

Necesitamos 5 empleados que nos cuestan 30.000 € al año cada uno, incluyendo ya los gastos de seguridad social. Hemos obtenido una subvención de explotación por estas contrataciones de 20.000 € en el primer año. El resto de gastos generales: alquiler, energía, seguros,... asciende a 100.000 € al año.

Por otra parte, el coste en materia prima de una tabla es de 100 € y su comercialización tiene un coste variable de 25 € por tabla. El precio de venta es de 300 € la tabla.

Para determinar la viabilidad del negocio en los primeros años, vamos a realizar los siguientes cálculos:

1. ariketa

Kalkulatu hasierako inbertsioak egin osteko balantzea, kontuan izanik, gainera, 500 taularako lehengaiaren hasierako stocka eta 100.000 €ko diruzaintza osagarria finantzatu behar ditugula. Hasierako kapitala 250.000 €koa da, eta gainerako finantza-beharrizanak epe luzerako mailegu batekin beteko dira. Maileguak urte biko gabe-aldia (Interesak bakarrik ordaindu) dauka. Maileguaren zenbatekoa zehaztu behar da.

1er ejercicio

Obtener el balance tras realizar las inversiones iniciales, si además tenemos que financiar un stock inicial de materia prima para 500 tablas y una tesorería adicional de 100.000 €. El capital inicial es de 250.000 €, y el resto de las necesidades financieras se cubren con un préstamo a largo plazo con dos años de carencia (solo se pagan intereses), cuyo importe hay que determinar.

2. ariketa

Kalkulatu lehenengo urteko emaitza-kontua, 2.000 taula saldu nahi baditugu. Kontuan hartu urteko finantza-gastua hasierako maileguaren %5a dela eta zerga aurreko mozkinen gaineko sozietateen gaineko zergaren tasa % 30a dela

2º ejercicio

Obtener la cuenta de resultados del primer año, si pensamos vender 2.000 tablas, considerando un gasto financiero anual del 5% del préstamo inicial y un tipo de impuesto de sociedades del 30% del beneficio antes de impuestos.

3. ariketa

Kalkulatu lehenengo urteko errentagarritasun-atalasea edo puntu hila. Kalkulatu gure kapitalak lehenengo urtearen amaieran duen errentagarritasun-ratioa.

3º ejercicio

Obtener el umbral de rentabilidad o punto muerto en el primer año, y obtener el ratio de rentabilidad de nuestro capital al final del primer año.

4. ariketa

Lehenengo urtea amaitutakoan, mozkin guztia enpresan berrinbertitzen da, taulentzako lehengaiaren stock-a % 50a hazi da, bezeroek 60.000 € zor dizkigute eta guk, berriz, 15.000 € zor dizkiegu Ogasunari eta hornitzaileei. Kalkulatu balantze berria eta adierazi finantziazio osagarri behar den; behar izanez gero, adierazi zenbatekoa izan behar den finantziazio hori; beharko ez balitz, berriz, adierazi diruzaintzarik dagoen erabilgarri eta zein den horren zenbatekoa.

4º ejercicio

Si al finalizar el primer año la totalidad del beneficio se reinvierte en la empresa, se incrementa en un 50% el stock de materia prima para tablas, los clientes nos deben 60.000 € y nosotros debemos a Hacienda y proveedores 15.000 €. Determinar el nuevo Balance e indicar si se necesita financiación adicional y de que importe, o si existe tesorería disponible y de que importe.

5. ariketa

Definitu maniobra-fondoa, zer adierazten duen eta kalkulatu lehenengo balantzetik bigarrenera bilakaera positiboa ala negatiboa izan duen.

5º ejercicio

Definir el Fondo de Maniobra, qué indica y calcular si ha evolucionado positiva o negativamente desde el primer Balance hasta este segundo.

6. ariketa

Hasierako 1.000 m.u. behar duen inbertsio batek eta hurrengo hiru urteetan ondorengo kaxa fluxuak 300 m.u. lehenengoan, 500 m.u. bigarrenean eta 600 m.u. hirugarrenean sortuko dituena. Eskatutako deskontu tasak %10a lehenengo urtean % 12a bigarren urtean eta %15a hirugarrenean, aurreikusitako inflazio tasak %5a lehenengo urtean, %3a bigarrenean eta % 2a hirugarrenerako. Zein da inbertsioaren EBG?

6º ejercicio

Sea una inversión que requiere un desembolso inicial de 1.000 u.m. y que, teniendo una duración de tres períodos, generaría unos flujos de caja de 300 u.m. en el primer período, 500 en el segundo y 600 en el tercero. Los tipos de descuento aplicables son el 10% en el primer período, el 12% en el segundo, y el 15% en el tercero. Las tasas de inflación previstas son el 5% para el primer período, el 3% para el segundo y el 2% para el tercero. ¿Cuál es el VAN de esta inversión?